

## PELLO ETXENIKE FISIKARIAREN

TXILLARDEGI

**Urte bakoitzeko U.E.U.-ak ezaugarri bereziren bat izaten badu, aurtengoan PELLO ETXENIKE-ren pertsonaia izan daiteke ezaugarri berezi hori. Bere sasoiari ageri, eta beti ere irribarrez eta umore onean, Izaba-ko seme hau gailen agertu da Iruñean zientzi-mailan. Euskaldun gutxiak daki, ordea, lehenengo mailako fisikari euskaltzale bat dugunik. Eta zenbait galdera egitera joan gaitzaizkio:**

*Punto y Hora: Fisika-Sailean egin duzun lana kanpotik ezagututa ere, goi-mailako gaiak aztertu dituzuela esango genuke. Besteak beste, Schrödinger-en uhinak eta abar. Zer deritzok egin duzuen lanari? Nola ikusi dituk lankide izan dituan Arantza Iztueta, Agirregabiria, Basaldua, eta gainerakoak? Nola moldatu zarete Fisi-kaarlo horiek euskaraz azaltzen?*

P.Etxenike: Fisika sailean egin den lana ona izan da. Arantzak, Agirregabiriak, Basalduak, Jose Ramonek, Iturbek eta gainerako askok emandako saioak benetan onak iruditu zaizkit. Sail horretan ihardun garenok, ikastaro labor honetan burutu ditugun ikasketak eta ikerketak baino askoz ere sakonagoak burutzeko gai gara uste dut. Eta hain zuzen horri derizkiot nik garrantzitsuena. Jakina, guk egin dugun lana epaitzerakoan honako hau hartu behar litzateke kontutan: gauza bat dela urte guztiz ariko litzatekeen Unibertsitatea eta beste zerbaite dela hamabost eguneko ekinaldi hau. Euskara aldetik, baditut nik nere zailtasunak, euskaldun berri izatez gainera, egun gutxi batzutan besterik izaten ez dudalako euskaraz aritzeko aukerarik. Baina taldean egin den lanak, garbi erakutsi digu esukarak ez diola eragozpenik jarri, guk egiteko genuen lanari.

*P.y H.: Santiago egunean Einstein-i eskaintako eguna izan genian Iruñean. Hik bilduma bat aurkeztu huen: Errelatibitatez gain ere, Einstein-ek Fisikari eman zion alderdiarenai Gero eztabaida izan genian areto nagusian. Han entzun zena, eta hik beste Unibertsitateetan entzun hezakeena, nola ikusten dituk? Maila berean? Maila bertsuan bederen? Ala, apalago ikusten duk Iruñe-ko eztabaidaren muina? Noski: har ezak kontutan aretoan zirela mota eta sail guztietako unibertsitariak, eta ez fisikariak bakarrik. Zer esango huke honetaz?*

P.E.: Einsteini egin genion omenezko saioaren ondoren sortu zen eztabaidak ez du inongo lotsarik. Han bildu ginenok ez

ginen noski Einsteini buruz ikerketak eginak dituzten ikertzaileak. Guk eginico omenaldia, beraz, ezin konpara daiteke Bernan eskaini zitzaion harekin. Baina Unibertsitatean diharduten irakasle eta irasleen arteko jardunaldi bezaña harturik — eta hala izan zenez, hala hartu behar! — oso ona izan zela esango nuke. Zenbait ikaslek jarritako galderak oso sakonak izan ziren. Gogoan dut, adibidez, batzarkideetako batek jarritako galdera: nola ikusiko ote lukeen izadia arti-izpiaren gainean lijoakena. Galdera hori egin zuen ikaslea -zirudinez, bera ohartzeko - Einsteinek hamabost urte zituela egindako galdera bera berrituz ari zen. Erantzun tajuzkorik ezin ahal izan genion, ze, Einsteinek berak ere ez baizigun bere bizitza oparoan erantzunik asmatu ahal izan.

*P.y H.: Batzutan nekez ibili omen haiz fi-*

*sikaarazo zail riek euskara hutsez azaltzeko. Noiztanik haiz euskalduna? Nola ikasi huen euskara? Gurasoak ultzamarrak izanik ere, zer egiten zenuten etxean?*

P.E.: Zailtasunak ditudala? «Noski baino noskiago!» Luis Bandresek esango zukeen... Euskara ikasteko saioak orain dela hamar bat urte egin nituen. Ikastaro bat edo beste Donostian, Oinatin... Hortik aparte, hitzegiteko aukera bila ibili naiz. Horretarako egin nuen egonalditxo bat Azpeitian... Baina geroztik aukera handirik ez dut izan hitzegin ahal izateko; orduz gero herritik kanpora bai nabil.


*P. y H.: Euskaraz ikas daiteke, beraz...*

P.E.: Galdegiten didazunari, nik uste, zuk zeuk erantzun izan diozula ongien, zeure bizitzaz erantzun gainera. Ikas ote daitekeen euskara?. Berrito ere Bandresena nioke: «noski baino noskiago!». Gehienbat, nere iritiz, bakoitzaren erabakiaren gain dago. Beharrezkoak dira baita ere, halako baldintza batzu: irakasle onak, giroa...

*P. y H.: Eta ingelesaz zer? Alegia: maila gorena duen hizkuntza ingelesa duk, gure ustez. Eta errusiera ere bai, agian. Gero,*



Etxenike, catedrático de Física a sus treinta años en la Universidad de Barcelona.



Pello Etxenike es hijo de Isaba.

*baino askoz ere apalago (Fisikan, Linguistikan, eta beste sail askotan) frantsesa eta gaztelera zeizotik. Zer proposatuko huke hik Euskal Unibertsitateaz hizkuntza arazo honi buruz? Nola konpon liteke istilua, euskarari dagokion lekua ukatu gabe?*

**P.E.:** Hontan nik uste Herrialde Eskandinabiatarren jokabideari heldu behar geniokeela. Herrialde horietan ikasle-irakasleak gai dira edozein gairi buruz beren jatorrizko hizkuntzan hitzegiteko; ikerketa mailan ere, beren artean, jatorrizko hizkuntza darabilte. Besterik da zenbait lan argitaratzeko orduan. Batez ere ni nabilen sailean, ikerketa lanik burutuko bagenu, gehienetan ingelesez argirara behar harko genituzkeen. Jokabide bikoitza dirudi horrek, baina praktikari begiratzuz gero, oso ondorio onak lituzke guretzako, horrelako eredu bati jarraitzeak.

**P. Y H.:** U.E.U.-aren saiaketa, hitz batez, ongi ikusten duk. Eta hamabost egun hauetan jo-ta-ke hemen egon haiz. Proba hoberik ezin eman! Zer proposatuko huke, beraz, geroari buruz?

**P.E.:** Oso pozik ibili naiz ni hemen. Nereztauko aukera paregabea gertatzen baita, hamabost egunez eta unibertsitari giroan

euskaraz bizi ahal izateko. Gerora begira?... Ba, agian obe genuke Unibertsitarien Biltzar edo Kongreso baten tankera gehiago ematea. Eta hau bi arrazoigatik esaten dut: Batetik, sail batzutan, tankera hori baduelako dagoneko; eta bestetik, hamabost egunez ezin daiteke Unibertsitate paralelorik sortu. Era horretan tanke-ratutako Biltzarraren egitekoa honelatsu molda daiteke: ikasle eta irakasleok urtearen buruan ari dugun ikerketa eta ikasketen azalpen laburrak eskaini, elkarren lanen berri jakin dezagun. Era horretan, egunoroko Unibertsitate bizitza iker-tzaile eta euskalduna bildu eta eragingo luke.

**P. y H.:** Egun hauetan behin eta berriz entzun diagu hire esana: gogor izan behar diagu, eta zientzitasuna, jakintza-maila, hertsiki eskatu. Kontutian hartzen ahal duk, halere, euskara orain arte izan duen maila apala?

**P.E.:** Gizona!... nik uste kalitateaz asko hitzegin dudala, baina museko txapelketaz ere bai... Dena dela, nik uste bat gatzela, biak, hau da: kalitatea eta euskara, behar ditugula esatean... Behar bada, beste zenbaitek baino gehiago azpimarra-

tzen dut honako hau: gai alderdik gure alboan erdaraz dihardutenen maila lortzen ez badugu euskaraz aritzerakoan, euskara bera (horrela erabilitako euskara) gerta daitekeela euskararen baztertzaille. Jakina, nik badakit, hainbat paliza hartu dituen euskari ezin diogula eskatu gure artean hain mimatua izan den gaztelerari hainbeste... Baina gaixorik dagoela ta, ezin gaitezke konformismoan erori. Gaineratu nahi nuke baita ere, euskara ez erabiltzeko kalitatearen aitzakia jartzen duten askok hitzik ateratzeko eskubiderik ez dutela, gazteleraz ere ez baidute hoieta askok inolako kalitatearik. Eta alderantziz, gure artean ikusi ahal izan dugu, kalitatezko saioren euskaraz.

**P. y H.:** Euskara, zeharo ados gaituk, baldreskerietatik eta trabena-girotik altxa beharra zegok. Zalantzarik ez. Ez duk beldu-rrik, halere, kolpez hestuegi jarriz gero, «landarea» erauzi eta eihar daitekeenik?

**P.E.:** Esan bezala, ondo gizendutako gerra duen arbolari eta bizitzeko beharrezko zuen ongarrari oro ukatu zaion landareari, ezin eskatuko diogu fruitu berdinek. Denok nahi dugu indartu erauzi nahi izan duten landarea. Baina begira: nola lor dezakegu fruitu asko eta ona eman dezan? Hori da nere galdera. Ona izan arren, ezer gutxiin agertzen bagara azokan, kompetentziak jarraituko du nagusi izaten. Hortan konforme nago. Baina, zera asko plazaratu arren, guk saltzeko ditugun... besteenak baino txarragoak badira, ez dut uste gehiago aurreratu tuko dugunik. Arazoa, beraz, biak elkarri lotzean datza. Kalitatearen izenean euskara baztertzeaz, aitzaki oso merkea besterik ez da. Baina euskararen izenean, kalitatean beheratzeak ez luke guretzat zilegi izan behar.

**P. y H.:** Hik, dena dela, euskara menderatu duk. Eta Hualde eta Mendigatxa erronkariarrak atzoko Erronkari euskaldunaren lekukoak badira ere, hi heu biharko Erronkari euskaldunaren aintzindaria haiz. Zer iruditzen zaizkik, beraz, euskara ezagutu gabe eta hizkuntzaren kezkatik urruti ditugun «intelectual vasco» horietaz?

**P.E.:** Ez, ez... ni baino aintzindari hoberik badu gaur egun ere, Erronkarik, zorionean! Nik uste, euskarari jaramon gehiago egiten zaiola gaur egun intelektua-

MIERCOLES, 1 DE AGOSTO DE 1979

Edita: Orain, Sociedad Anónima.  
 Imprime: Ardatz, Sociedad Anónima. Poligono  
 Eciago, 10, B. Hernani (Guzuzcoa).  
 Depósito Legal: SS.645/77  
 Telex: 36629 EGIN E.

Control de tirada y difusión por:



Director: MIRENTXU PURROY FERRER

# egin

AÑO III \* NUMERO 562 \* 28 PAGINAS

Reducciones y administraciones:

ARABA: General Alava, 10.

Tel. (945) 23 00 31. Gasteiz:

BIZKAIA: Mazarredo, 6.

Tel. (94) 424 44 04. Bilbao:

GIPUZKOA: Poligono Eciago, 10, B.

Tel. (943) 55 47 12. Hernani:

Apdo. 1.397. Donostia:

NAFARROA: Estafeta, 57.

Tel. (948) 22 71 00. Iruñea.

Precio del ejemplar: 20 pesetas

## GURE EGUNKARIA NUESTRO DIARIO

len artena ere. Giroa behintzat aldatzen ari da. Jakina, giroa aldatzetik eta hitzez onartzetik, pauso jakinak ematera tarte handia dago nonbait. Tarte hortan bizi gara oraindik ere. Euskararena, guere buruekin dugun zorra delakoaz jabetu behar gara; eta irakaskintzaren sailean gabiltzanok erantzunkizun handiagoa dugu gainera.



**“Gutako asko gara elebidunak, baina gure herrian ikas-arikaskintza oraindik ere erderaren diktadurapean dago”.**

*P. y H.: Beste puntu bat orain. Egun hauetan berra-berra zabaldu dituk Larraona honetan «Nafarroa, euskararen alde» domina horiek. Zer diok honetaz? Nafarroa Euskadi da, ala ez, azkenean?*

*P. E.:* Nafarra naizelako nauzu euskaldun. Nafarroa Euskalherri danekoa, jakin mundu guziak badaki. Ikusi nahi eztena baino itxuagorik ez da, eta noski... Beste hau ere egia da ordea: gaur egun Euskalherriak bere burua ez duela administrazioz bateratu. Nafarren artean ere asko dira, baterapen hori onartzen ez dutenak. Zergatik? Kontatu dizkietenak kontatuta gero, zer esango dute ba?... Oso importante da nafarren artean, gauzak behar bezala agertzea, horrela azken garaiotako desinformazioa gaitzeko, eta baterapen horren benetako zentzia eta esannahia agertzeko... Hori egiten denean, berehala lortuko dugu elkarren onerako baterapena. Hortaz oso itxaropentsu naukazu.

*P. y H.: Eta nola ikusten duk hizkuntzen arazoa Euskal Herrian? Nola joan gaitzete elebitasun horretaruntz? Zein litzateke lehenengo pausua?*

*P. E.:* Gutako asko gara elebidunak, baina gure Herrian ikas-irakaskintza oraindik ere erderaren diktadurapean dago. Eta hori gaitzitu beharra dugu. Nik neuk ez dakit zer nolako pauso teknikoak eman beharko lirateken, helburu horretara iristeko. Dena dela, oso kontutan izan behar genituzkeen, beste herrialdeetan gertatuak. Pauso okerrak ematen baditugu, aurrera joan ordez atzera egingo dugu. Ja-

kina, lehenengo pausoa EGB mailan egin beharko dugu. Baina, hemen ere betiko arazoa: zein da lehenago arrautza ala oiloa? Hau da: irakasle euskaldunak lehenengo ala ikasle euskaldunak? Baina berriro lehenagoko galderara gatoz, kalitatea eta kantitatea aipatzen zituen hartara alegia...

*P. y H.: Barka ezak, Pello, galdera politiko bat bederen egitea. Helburu horiek dirrela-ta, zer deritzok Estatu horri? Baietz erantzun behar dugula uste duk, ala ezetz? Eta zergatik.*

*P. E.:* Estaturaren aldeko borrokan bi gauza dira lehenengo aipatu nahi nituzkeenak. Euskaldunik gehienok hori lortzeko bat egin dugula, alde batetik. Eta bestetik, K. Garaikoetxea, Nafarra, izan dela euskaldun gehien aintzindari gertatu dena borroka honetan. Jakina, ba dira, hobea litzateken beste baten amesetan, lortu dugunari uko egiten diotenak... **Zer lortu den Estaturarekin? Hontan ere**

ez genuke aingerukeritan erori behar; lortzeko dugun guzia zaigu eginkizun. Baina, Estatuto honek, eginkizun zaizkigun zera guzti hoiek burutzen hasteko bidea ematen digu. Estatutoak, zuhur jokatzen badugu, bide ugari zabaltzen digu gure Herria euskal tankeran biregituratzeko. Eta kontua, hori lortzea da. Estatutoak horretarako bidea eskaintzen digunez eta bide hori egitearen aldeko naizenez, baietz esango diot Gernikako Estaturari.

*P. y H.: Bihar Ameriketara hoa. Joateko bezpera honetan, zer esango hieke «Punto y Hora»ko irakurleei?*

*P. E.:* Ba, UEUko berriak jakite hutsarekin ez ditezela konforma; kontua izan ere, ekitea baita eta ekinez gero, berri, jarraitzea. Bide batez, eskerrak ere eman nahi nizkieke, gure ikastaro hau girotu duten guziei, prestatzaileei bezala, irakatsiz eta ikasiz parte hartu duten guziei.

P.ETXENIKE



**Pello Etxenike -tercero de la derecha- con unos amigos.**

En aquel número en que hablábamos más extensamente sobre UEU (Udako Euskal Unibertsitatea) nos dejamos en el tintero a uno de los «personajes» al vernos desbordados por el trabajo.

Se trata de Pello Etxenike (Einstenike a decir de Zakilixut), que se nos presenta de la mano de Txillardegi.

Pello Etxenike, euskaldunberri de Isaba, que ronda los 30 años, es catedrático de Física en la Universidad de Barcelona y uno de esos «cerebros» que las universidades disputan —según nos informaron— para sus planteles docentes. Pero además Etxenike, por ser navarro es vasco, transcribiendo sus palabras y euskaltzale.

En la UEU estaba inscrito en la sección de física y especialmente en el homenaje a Einstein, celebrado el 25 de julio que él calificó de muy bueno «aunque sin compararlo —dijo— con el celebrado en Berna».

Preguntado sobre sus impresiones respecto a la adaptación científica del euskara: «Sino conseguimos —dice— el mismo nivel cualitativo de los temas tratados en lengua extranjera, el euskara en sí, el empleado en dichos temas, relegaría al propio euskara». Pero añade: «El prescindir del euskara alegando el nivel calitativo, es una alternativa muy poco competente».